



Italia eta Alemaniako barroko doinu ederrak Musika Topaketei amaiera emateko.- Danok Kide elkarteak antolatzen dituen Musika Topaketen hamargarren edizioak amaiera ekitaldi ederra izan zuen ostiralean. Euskadiko Orkestrako kideez osatutako 'Syrinx' ganbera-musika taldeak Brigitarren komentuan kontzertu paregabea eskaini zuen. Honetan, Italia edo Alemaniako gorteetan entzuten ziren barroko doinuez gozatu ahal izan zuten entzuleek. Izan ere, Vivaldi, Sammartini edo Telemann konpositore edo Benda biolin-jotzaile eta Quantz flauta-jotzaileen lanak izan baitziren Brigitarren komentuan. Gainera, laukoteak barroko garaian erabiltzen ziren musika instrumentuekin jo zuen eta flauta, biolin, espineta eta fagotaren notak nahastu ziren lan ezberdinetan. Carlos Rosat, Iciar Mugica, Mario Telenti eta Tomas Ruti Euskadiko Orkestrako irakasleek haien musika tresnekin duten trebetasuna erakutsi zuten emanaldia osoan zehar. Hori dela eta, emanaldi amaieran, komentura hurbildu ziren herritarrek ongi eskertu zuten haien lana txalo zaparrada handi batekin. Danok Kideko lagunek aurtengo Musika Topaketen irakurketa positiboa egin dute.

3 HAUTESKUNDEAK

Estitxu Alkorta EAJ/PNV alderdiko alkategaia

EAJ/PNV-k Estitxu Alkorta aurkeztu du bigarren udaleko alkatezarako. Legealdi honetan Ogasun sailean lanean aritu da eta Udalaren kudeaketa hobeto ulertzeko bidea eman dio. Udalak herritarrei zerbitzu hobea ematearen alde egingo du lan, baita enplegua sustatzearren alde ere.



6 ARETO FUTBOLA

Ostadar Gipuzkoako II. mailan da

Ostadar Cecilia Fruta Denda Kebab Lasarte taldeak Gipuzkoako bigarren mailarako igoera eta III mailako finalerako txartela eskuratu zituen. Bestalde, Ostadar Antonio Aroztegiak III. Nazionalan eta ISU Leihoak taldeak Gipuzkoako I. mailan sailkapenaren erdialdean amaitu dute denboraldia, mailari eutsiko diote.





ESTITXU ALKORTA
LASARTE-ORIAKO ALKATEZARAKO HAUTAGAIA
CANDIDATA A LA ALCALDIA DE LASARTE-ORIA

ej-pnv.eus
gipuzko.eus

**LASARTE-ORIA
EKINEZ EGINA**

**HECHOS
PARA LASARTE-ORIA**

EMAN BOTOA / VOTA



HACER CRECER EUSKADI HAZI ARAZI

IKASTAROAK

Elikagaien segurtasuna

Elkolab enpresak, Udalaren Sanitate Departamentuarekin elkarlanean, bi ikastaro eskainiko ditu elikagaien segurtasunari buruz. Batetik, janari-manipulatuak ikastaroa izango da. Honek Osasun Sailak eskatzen duen autokontrolaren inguruko edukiak ditu. Ikastaroa maiatzaren 13an emango da, 16:00etatik 20:00etara. Prezioa 45 euro pertsonakoa da, eta langabetuentzako prezioa 35 euro. Bestetik, "Elikagaien alergenoak, zure bezeroei informazioa eman", ostalariei eta dendariei zuzendutako ikastaroa izango da. Honetan indarrean jarri diren lege berriak eta hauek ekartzen dituzten bete beharrak ezagutzera emango dira. Ikastaroa maiatzaren 20an emango da, 16:30etik 19:30era. Prezioa 50 euro, eta langabetuentzat 40 euro. Anbulatorioko bigarren solairuko erabilera anitzeko aretoan izango dira biak. Informazio gehiago jasotzeko edo izena emateko OMIC-KIUB 943 361 605 edo Elkolab 943 533 303.

TAILERRA

Baratzea balkoian

Udalak "Baratzea nire balkoian" ikastaroa antolatuko du Aste berdearen baitan. Ikastaro honen helburua "herritar gehiagok beren balkoietan baratzak izatea" da. Honetarako, balkoi batean baratzkiak zaintzeko moduak, hazteko metodoak, garaiak, substratu motak eta loreontzi ezberdinak erakutsiko dira. Guztia modu praktikoan egingo da. Tailerra doako da eta ekainaren 5ean eskainiko da, Udal-Pabiloian (Lanbide eskola) arratsaldeko 16:00etatik 20:00etara.

Apuntatzeko Hirigintza eta Ingurumen departamentuarekin harremanetan jarri behar da 943 37 61 89 telefonora deituta edo ingurumena@lasarte-oria.org helbide elektronikora mezua bidaliaz. Izen-Abizenak, helbidea, telefonoa eta NAN dira eman beharreko datuak. Gehienez 20 pertsonako taldeak osatuko dira.

UDALA

Ohiko udalbatzarra bihar

Bihar 18:30ean izango da ohiko bilkura Udaletxean. Akten onarpena eta PSE-EEK aurkeztutako bi mozio eztabaidatuko dira, bata Nepalen gertatutako hondamendiarena eta bestea herrian Lanbideak zeukan formazio zentroaren itxieraren ingurukoa. Azken puntuan galdera eta erreguen txanda jasotzen da.

UDALA

Egutegi fiskal berria

Ekainean ordainagiri guztiak pilatu ez daitezzen, zaborraren tasa kobratzeko azken eguna maiatzaren 15a da. Kontribuzioaren zergarena, aldiz, ekainaren 30ean mantenduko da. Egutegi fiskal berria: Ibilgailuen zerga martxoaren 1etik apirilaren 15era, ondasun higiezinaren gaineko zerga (kontribuzioa) maiatzaren 15etik ekainaren 30era, jarduera ekonomikoaren gaineko zerga urriaren 1etik azaroaren 10era, zaborren tasa apirilaren 1etik maiatzaren 15era, ibiaren tasa urriaren 1etik azaroaren 15era eta azkenik, uraren eta estolderiaren tasa 1. lauhilekoa: ekainaren 1etik uztailearen 15era, 2. hiruhilekoa: urriaren 1etik azaroaren 15era eta 3. hiruhilekoa: otsailaren 1etik martxoaren 15era. Era berean, 2014ean SEPAREN ezarpenari ekin zaio. Hori dela eta, banketxeen arautegiaren arabera, Udaletxeak banketxeen bidalitako helbideratutako zordunketa guztiak sistema honen bitartez kudeatzen dira. 2014an aplikatutako berrikuntzaren ezaugarrietako bat da zordunari helarazten zaion informazio murrizketa. Hori dela eta, udaletxeak erabaki du helbideratutako zordunei ere, kontu korrontean kargatuko zaien zenbatekoa aurrez informatzea. Helbideratutako ordainagiri guztiak borondatezko epearen azken egunean kobratuko dira beti. Informazio gehiagorako, Udaletxeko hirugarren solairuko Zerga-bilketa bulegora jo daitezke ala 943376187 telefonora deitu.

HAUTESKUNDEAK



EHBilduk bizikleta martxa egin zuen larunbata goizean. Igandean, Lasarte-Oria Ahal Du taldeko lagunak Jaizkibel plazan izan ziren.

Kanpaina hasi da

Alderdiak ekintzaz ekintza daude bozka eske

Maiatzaren 24ko udal eta Foru hauteskunde kanpaina ostiralean hasi zen. Lasarte-Oria aurkeztu diren alderdiek hainbat ekintza burutu dituzte asteburuan herritarren bozka bereganatzeko.

TXINTXARRI

Lasarte-Oriako EAJ, EHBildu eta PSE-EEK ez zuten minuturik galdu eta ostiraleko gauerdian eman zioten hauteskunde kanpainari ohiko kartel jartzearekin.

Baina ez da hau alderdiek egin zuten ekintza bakarra izan. Asteburuan hainbat ekitaldi zeuzkaten aurreikusiak.

Bizikleta Martxa

EHBilduk ostirala arratsaldean mahai informatiboa jarri zuen Andapa kalean. Honetan, Pablo Barrio alkategaiak eta zinegotziek Zumaburu

auzoko ibai ertzerako duen birmoldatze proiektua azaldu zieten mahaira hurbiltzen ziren herritarrei.

Era berean, larunbata goizean bizikleta martxa bat egin zuten herrian eta Plazaolako bidean barrena Lasarte-Oriako bidegorriaren proiektua aurkezteko.

Lasarte-Oriak Ahal Du

Lasarte-Oriak Ahal Du-k bere programa azaltzeko mahai informatiboa ezarri zuen larunbata goizean Okendo plazan.

Igandean, berriz, Jaizkibel plazan taldearen lehen mitina

eskaini zuten zerrendako kide eta Arkaitz Naya alkategaiak.

Bertan behera

PPren ekintza berriz, bertan behera geratu zen Sevillan jazotako hegazkin-istripuko biktimei elkartasuna erakutsiz.

Honetan, Juan Carlos Cano Gipuzkoako ahaldugaiaren babesa izango zuen Alex Saenz alkategaiak.

Ekintza gehiago

Aste honetan zehar ere, hauteskunde ekitaldiak izango dira.

Lasarte-Oriak Ahal Du taldea arratsaldetan auzo auzo joango da mahai informatiboa jartzera. Gaur, Isla plazan izango dira 18:30etik aurrera.

EHBilduk, berriz, ostiralean, 19:30ean hauteskunde kanpainako ekitaldi nagusia egingo du Okendo plazan.



PSE-EE




EAJ/PNV

PSE-EEko eta EAJ/PNV-ko zinegotziek herriko hainbat puntuetan kartelak jarri zituzten kanpaina hastearrekin batera.

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDALA

Laguntzailea



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



GFAko Kultura eta
Euskara Departamendua

Txintxarri ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93

ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Maidar Azurmendi, Jon Altuna,
Nerea Eizagirre

txintxarri@txintxarri.info

Publizitatea eta administrazioa:

Arantza Artola
publizitatea@ttakun.com
administrazioa@ttakun.com

Laguntzaileak:

Unai Muñoa, Gorka Lasa,
Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier
Odriozola, Maider Seguro, Jexux
Artebe, Gorka Alvarez, Pako
Aizpitarte, Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Amadoz

Estitxu Alkorta EAJ/PNV-ko alkategaia

“Zerbitzu publikoetan dena dago hobetzeko”

Udalak kalitatezko zerbitzuak eskaini behar dituela azpimarratzen du jeltzaleen hautagaiak

Estitxu Alkorta EAJ/PNV-ko alkategaia bigarren aurkezten du bere hautagaitza Udal hauteskunderetan. Legealdi honetan Udaleko Ogasun departamentua bere esku egon da, honek Udal kudeaketan esperientzia eman diola azpimarratzen zuen bere aurkezpenean.

TXINTXARRI

Zeintzuk dira zure ustez Lasarte-Oriak momenton honetan dituen beharrak?

Hiru gabezi “handi” izendatuko nituzke nik. Lehenengoa eta une honetan larriena, enplegu falta da eta enplegu falta horren atzean, zalantzarik gabe, industriaren garapen eza azaltzen zaigu.

Bestalde, gaizki pasatzen ari diren aldetik, administrazioaren atentzio egokiago bat eta erantzun azkarrak aldarrikatzen ari dira. Eta hori dena, Udalaren kalitatezko antolaketaren baten eskutik etorri behar du, ezinbestean.

Eta hirugarren gabezi bat izendatu beharko banu, kirol azpiegiturei lotutakoa da. Kirola herri honetan hartzen ari den garrantziaz jabetu behar gara lehenbailehen; eta erantzun egoki bat ematea tokatzen zaio administrazioari, bai azpiegiturei dagokienez eta bai kudeaketari dagokienez.

Zein esparrutan eragin behar da gehien zuen ustez?
Industrializazioaren aktibazioan, zalantzarik gabe.

Enpleguaren sustapenean lanean dabiltzan erakundeekin koordinazioan lan egiten badugu, hala nola, LANBIDE, Michelin Fundazioa, Merkataritza Ganbera edo eta Jaurlaritza, enpresa berriak herriko guneetara (Michelin eta Rekalde) erakartzeko aukera handiagoak izango ditugu. Enpresa berrien inplantazioek, enplegua sortzeaz gain, diru-sarrerak ekarriko dituzte eta horrekin batera, Lasarte-Oria biziberritu eta herritarren ongizatea eragingo dugu.

Ekonomia, merkataritza sustatu eta langabezia tasari erreparatuta zein neurri proposatzen dituzue?

Arestian aipatutako lan egiteko modua da gakoa. Harremanak sendotu behar ditugu gainontzeko erakundeekin, horiek baitira ekonomiaren eta enpleguaren sustapenean eskumenak dituztenak.

Baina, Udaletik ere, gauza askotan lagundu dezakegu: ibaiertzean dauden poligonoak txukuntzen adibidez; ekintzailak laguntzen, euren enpresak abian jartzeko guneak eskainiz; industriguneak garatzen (Rekalde eta Michelin); aisialdi eskaintzak sustatzen eta doako parkinak eskaintzen erosketak, herriko dendetan egiteko; Buruntzaldeko Garapen Agentzia sortzen, bailarako enpresei laguntza eskaintzeko, eta abar.

Hirigintzari dagokionean, etxebizitza eta aparkaleku eskaintza herrian nolakoa da egun eta nolakoa beharko luke?

Etxebizitza berriak egingo diren neurrian, lurpeko aparkalekuak ere areagotuko dira. Nolanahi ere, gaur gaurkoz badaude erabili gabe dauden eta udal jabe gokoak diren hainbat aparkaleku: Okendokoak, eta Michelin-go garaje itxiak adibidez. Okendon dauden ia 100 aparkalekuak alokairuan atera behar dira lehenbailehen, pleguak eta oinarriak duela hiru urte eginak baitaude. Eta Michelingo garajei dagokienez, ur filtrazioak lehenbailehen konpondu eta saldu edo alokairuan atera beharko lirarteke, gure ustetan.

Herrian dauden zerbitzu publikoei dagokienez, zer hobetu/indartu behar da?

Dena dago hobetzeko. Udal baten gestioa, eskaintzen diren zerbitzu publikoetan islatzen da. Eta hori izan da, zalantzarik gabe, legealdi honetako zulo beltza.

Gestio ezin okerragoa, herritar guztion kaltetan: kale garbiketa, argiteria, kale konponketak, Oria elizaren mantenua, eskolen mantenua, asfaltatze lanak, parkeak, zebra bideak... dira, besteak beste, kudeaketa azkarrago eta egokiago bat eskatzen duten gaiak. Eta horren aurrean zer? Talde oso bat kudeatzeko gai den alkate-kudeatzaile bat behar dugu herri honetan.

Kultura alorrean, zeintzuk lirarteke lan ildoak? Euskarak



zein leku dauka?

Kultura eta euskara oinarri oinarritzkoak dira.

Gure proposamen artean hauek azpimarratuko nituzke: Udalak sortutako edukiak, herriko eragile eta eragile publikoen artean sistematikoki gizarteratzea IKTak erabiliz, sormen artistikoa eta kulturala bultzatzeko mezenasgoa sustatzea, euskararen erabilerarako sentiberatasun kanpainak bultzatzea, euskarazko kulturaren egitarau eta sustapen ekintzak lehenestea, legealdi honetan martxan jarritako “Bidegorria”ren egitasmoa bultzatzea eta Udal Liburutegia zahar berritzea.

Eta kirolak?

Kirolak gure programaren zati handi bat hartu behar duela erabaki genuen. Etorkizuneko Lasarte-Oria irudikatzen dugunean, gizarte kohesionatu bat, elebiduna, eta balore batzuetan hezitako pertsonen osatutako herri bat ikusten baitugu. Eta guzti hori kirolaren sustapenean eskutik etorri daitekeela pentsatzen dugu.

Horregatik, bai kudeaketari dagokienez eta bai azpiegiturei dagokienez, hainbat proposamen zehatzak plazaratu ditugu, esate baterako: kirol elkartei bideratutako diru-laguntzen kudeaketa hobea eskaintzea, herrian dauden gimnasio pribatu guztiekin eta Hipika Miracamposekin, udal hitzarmenak bidera-

hauek auzo ezberdinetara zabaltzea positiboa bada ere, ez da nahikoa. Jaietako programan ere eragin behar dela uste dut, mota guztietako pertsonengana iristeko.

Zeintzuk dira finkatutako lehentasunak eta erronkak?

Lehentasunak: enplegua, kirola eta ongizatea.

Estrategia: Oria ibaia eta urbanizazio berritzaile eta Lasarte-Oriarentzako irabaztea. Kolektore berriak ibaiaren garbiketa eta ekosistemaren errehabilitazioa ahalbideratuko du eta hori laguntzeko hobekuntzak egin beharko dira ibai-ertzean kokatutako industrialdeetan eta eremuetan, hala nola, Kotxerak ingurunean garapen urbanistikoa. Honek, gainera, Lasarte-Oria hiri moduan integratzea ekarriko du.

Horrekin batera, Michelin aldean proiektatutako presa pneumatiko bati esker, uretako kirol diziplina berriak egin ahal izango dira. Oriako eremu industrialak txukundu ahal izango dira eta bide batez, Lasarte-Oriak ibaiari bizkar emateari utziko dio

Alkate izatekotan zer da egingo duzun lehenengo gauza?

Antolamendu eta Kalitatezko Departamentua sortu Udalean eta horren bitartez, udal organiazio egituraren hobekuntzarako ekintzak bideratzea.

Udaletxe bat, enpresa bat da, eta herritarra bere bezero nagusia. Herritarren ongizatea hobetu nahi badugu, kalitatezko zerbitzuak eskaini nahi baditugu, diru-laguntzak ondo kudeatu nahi baditugu, kontratazioak azkar atera nahi baditugu, estrategikoak diren azpiegiturak martxan jarri nahi baditugu, departamentu guztiak ondo koordinatuta egon behar dira eta arlo guztiak oso ondo “engranatuta”. Eta horretarako “makina” inbertitzea ezinbestekoa da.

Nolakoa herria irudikatzen duzu lau urte barru zure zerrendak gobernaturako balu?

Aberastasuna eta herritarren ongizatea sortzeko gai den herri bat irudikatzen dut, oinarri sendo batzuetan eraikitako udal erakunde batek lideratuta, elkarbizitza eta gizarte kohesioa jardunaren erdigunean izango duena, eta Lasarte-Oria bizitzeko leku erakargarri batean bihurtuko duena.

zea kiroldegiko bazkideentzako, operazio urbanistiko koordinatu baten bitartez finantzaturako Michelingo instalazioen ondoan kiroldegi berri bat eraikitzea, aurrean sortuko den diru-soberakinarekin finantzaturako atletismoko pista izango dituen bigarren futbol zelaia Atsoabarren egitea, ur-kirolak sustatzeko Oria ibaian presa pneumatiko bat jartzea.

Zer iruditzen zaizu herriaren parte hartzea erabakietan eta ekimenetan?

Oso positiboa. Egia da, herritarrei erantzun azkarrak eta kalitatezko atentzio bat eman nahi badiegu, ezinbestekoa dela alkate-kudeatzaile bat izatea eta talde eraginkor bat izatea gobernuan. Erabakiak hartzen jakingo duena, alegia.

Horrek ez du kentzen herrian estrategikoak izan daitezkeen proiektutan (azpiegitura berri baten aurrean, etab), herritarren parte-hartzea bultzatu behar ez denik.

Jakina! Baina guzti hori, ondo araututa eta landuta egon behar da aurretik, eta lan hori gaur gaurkoz, ez dago eginda.

San Pedro jaiak deszentralizatuak izan behar dute edo Okendok izan behar du gune bakarra?

Okendo gune nagusia izan behar du baina ez bakarra. San Pedro jaiak anitzak izan behar dira eta

Idoia Cuesta Saskigilea

“Saskigintzak aplikazio pila ditu”

Idoia Cuestak Artisautza sari nazionala eskuratu du saskigintza berritzeagatik

Lugoko herri txiki batean bizi da Idoia Cuesta herritarra. Biologia ikasketak egitera joan zen Galiziara eta bertan geratu zen saskigintza tradizionala eraldatzen. Fibra natural ezberdinak saskigintzaren teknikekin uztartuz pieza berritzaileak egiten ditu. Loewe markarentzat egin du lan eta martxoan estatu mailan artisautza alorrean ematen den sari gorena eskuratu zuen. Ahal duenean gerturatzen da herrira eta Erretereriako azoka baliatuz berarekin hitz egiteko aukera izan dugu.

MAIDER AZURMENDI

Idoia Cuestak saskigintza tradizionalari ikuspegi berritzailea eman dio eta horregatik izan da saritua.

Diseinua funtsezkoa dela uste du baita elkarlana ere. Artisautzako sari nazionala eman dizute berriki. Zer suposatzen du sari honek?

Harro egoteko aitortza da. Sari hau jasotzea ez da bakarrik nire lanari aitortza izan, saskigintzari dagokiona baizik. 15 urte hauetako ikerketa eta lanari saria ere izan da. Oroigarriaz gain, 3.000 euroko saria da. Baina benetan balio duena egindako lanari aitortza da. Galizian batez ere, hedabide askok eman diote oihartzuna sariari eta ezagutzera eman du nire lana esparru ezberdinetan. Oso pozik nago.

Saskigintza esparru ezberdinetara zabaltzen ari zara. Loewe-arentzat bilduma bat osatu duzu.

Bai bi udaratan saldu dira elkarrekin egindako poltsa bildumak. Loewek saskigintza teknikak aplikatu nahi zituen poltsa batzuetan eta horrela jarri ziren nirekin harremanetan. Zuzenean lan egin nuen markaren diseinatzaileekin eta ondoren, produkzioa nire esku egon zen. Laguntza eskatu behar izan nuen, eta hala ere, lan izugarria izan zen hilabete gutxitan egiteko. Erronka bat izan zen baina oso esperientzia ona.

Gainera, produkzio txikia edo eskusiboa izan zen eta berehala dena saldu zuten. Berriz nirekin kontaktu nahi izan dute eta elkarrekin lanean jarraitzen dugu. Orain hiru serie egin nahi dituzte oso txikiak eta artisau ezberdinekin. Saskigintzaren teknikekin bol batzuk nahi dituzte egin. Esan daiteke gauza oso eskusibo eta bereziak egin nahi dituztela. Batez ere teknika berriak bilatzen dituzte.

Eskaintza jasotzerakoan, sustoa izan zen baina euren funtzionamendua ezagutzen

duzun neurrian erosoago sentitzen zara.

Bestalde, balio izan dit jakiteko non dauden nire limiteak eta jakiteko gai naitzen edo ez egitasmo hauei aurre egiteko.

Artisautza esparru askotara zabaldu daiteke orduan...

Bai, halako elkarlanak oso positiboak dira, niretzako artisautzak bat egin dezake modaren munduarekin, luxuzko markekin... Saskigintza ez da bakarrik saskiak egitea, aplikazio pila ditu. Teknika ezagututa, arkitekturen, moda diseinuan, etxe barruko diseinuetan aplika daiteke oso emaitza onekin.

Garrantzitsua da hau presente izatea, izan ere, badiardi saskigintza tradizionala galdu egin dela, saskien erabilera murriztearekin batera eta ez da horrela. Saskigintzaren teknika orain, inoiz baino gehiago, pentsaezinak diren esparruetara eraman eta aplikatu daiteke, gauza benetan berezi eta ikusgarriak sortuz.

Nik aurkezten ditudan bildumetan ere, materialekin jokatzeko dut, diseinuekin...

Erretereriako artisautza azokan egon zara...

Bai esparru ezberdinetan mugitu beharra dago. Kasu honetan gonbidapena luzatu zidaten eta Euskal Herrira etortzeko aukera baliatu dut. Honetan parte hartzen hasi nintzenetik, kalitatean nabaritu dut garapena.

Gizartean artisautzaren inguruko ezagutza sustatu behar da. Artisauen lanari garrantzia eta balioa emanaz.

Artisautza ez da nahikoa baloratzen?

Orokorrean, ez dago artisautzaren kultura. Jendeak ez du baloratzen artisau lan askok duten aurrelana eta prezioan hori dagoela islatuta.

Salmentak jaitsi dira azken urteetan?

Krisia nabaritu da. Azoka zein feria profesionaletan antze-man da beharakada. Niretzako bi esparru ezberdin dira



kaleko azokak eta azoka profesionalak. Feria hauetara bakoitzak dituen bildumen katalogoa eta pieza batzuk eramaten dira. Horieta denak etortzen zaizkizu eta eskaeren gainean egiten da lan. Paris eta Madrilera joan ohi naiz. Feria hauek ere jaitsi dira. Lehen eskaera pila batekin bueltatzen zinen etxera eta orain berriz, kontaktu askorekin. Komertzial lan asko egin behar da gero.

Azokaz gain beste salmenta biderik baduzu?

Gure inguruko dendetan ere lan egiten dugu artisauok. Ni neu Galizian, hiriburu bakoitzean denda bat lotuta dut nire lanak bertan sal daitezen.

Bestalde, Xuntak laguntza lerro bat bideratu digu artisauoi, online salmenta webgunetan txertatzeko baita bidalketak egiteko packagin guztia diseinatu eta egiteko.

Egun sare sozialak ere funtsezkoak bihurtu dira. Artisauok hauek egoki erabiltzen ikasi behar dugu. Erretererian nengoela jarri eta hainbat pertsona etorri dira nire lana bertatik bertara ezagutzera.

Dena kudeatzea ez dirudi lan erraza...

Artisaua batzuetan oso bakarrik dago tailerlean. Iruditzen zait

taldean egin behar dela lan. Aurten bi neska egon dira nirekin praktketan. Diseinu eskolako ikasleak ziren, interiorismo alorrekoak. Bi aldeentzat oso aberasgarria izan da.

Diseinuari ematen diozu garrantzia asko?

Artisau bezala diseinuak bere plusa duela uste dut. Kolaborazio on batetik proiektu zoragarriak ateratzen dira. Azkenean guk ez dugu diseinuan formaziorik eta zaila da zerbait oso berritzailea bururatzera. Diseinadoreek formazioa dute eta horri bakarrik dedikatzen diote denbora eta ez piezaren produkzioari, salmentari, fakturazioari...

Saskigintza ikastaroak ere ematen dituzu?

Bai formazioa ematen dut. Ikastaro errazagoak ematen ditut emakume elkartetan, eskoletan... Bestelakoak dira workshop profesionalak. Beste artisauoi saskigintza teknikak azaltzea dizkiet.

Erakundeen aldetik sustatu egiten da artisauen lana?

Galizian Xuntatik asko sustatu da artisautza, hemen ez bezala. Galiziako Artisau eta Diseinu fundazioa dugu. Urtero gobernuak laguntza lerroak ematen dizkio fundazioari

artisautzan inbertitzeko eta horrela aurrera pauso garrantzitsuak eman ahal izan dira. Artisautzari bisibildadea eman zaio, Galiziako artisautzaren marka sortu da, internalizazioan lagundu zaigu...

Elkarlanaren defendatzaile sutsua zara...

Bai, ezin dugu betiko gauzak egiten jarraitu. Artisautzak bizirik iraun behar badu, berrikuntzak egitea beharrezkoa da. Saskigintza ez da bakarrik saskiak egitea, beste esparru batzuetara iritsi daiteke. Elkarlana eta eskura dauden baliabide guztiekin lan egitea da dagokiguna.

Nire ikuspegia ez dute artisau guztiek. Diseinatzaileekin lan egitea gehiegi goraiatzen dudala esaten didate. Nire iritziz, egiten den horri beste balio bat eman behar zaio, diseinuak edo aplikazio berriak emanaz, eta horrela erakargarri egin egungo merkatuarentzat.

Zein lanekin zaude?

Hainbat lan ditut. Balentziagaren inguruko erakusketa bat dago Madrilgo Trajearen Museon eta diseinatzaile batekin Balentziagaren tokado baten interpretazioa egin dugu. Erronka hauek dira gusatzatzen zaizkidanak.

Etorri gure eskaintzak ezagutzera eta baliatu gure tratu profesional eta pertsonalizatuaz



- Material elektrikoa
- Argiak
- Etxetresna elektrikoak
 - TB/HI-FI
 - Instalazio elektrikoak

www.electricidadarregui.com

Kale Nagusia 39 • LASARTE-ORIA
Tel.: 943 361080 • Tel./ Faxe: 943 372521

LASARTE-ORIA

2015-ko Udaberria
Maiatzak 15 Ostirala

Aterpean

Primavera 2015
Viernes 15 de Mayo

en Aterpea

EKINTZAK /ACTIVIDADES



• PUZGARRIAK JUAN XXIII DE 18:00 etatik - 21:00 etara / HINCHABLES PLAZA JUAN XXIII DE 18:00 a 21:00

• PUZGARRIAK ZUMABURU ELIZA PLAZAN 18:00 etatik - 21:00 etara/ HINCHABLES PLAZA IGLESIA ZUMABURU DE 18:00 a 21:00

• LASARTE-ORIAKO IKASLEEK UDABERRIARI BURUZ EGINDAKO MARRAZKI ERAKUSKETA, DENDA HAUETAN / EXPOSICIÓN DE DIBUJOS SOBRE LA PRIMAVERA DE LOS ESCOLARES DE LASARTE-ORIA EN LOS SIGUIENTES COMERCIOS:

- | | | |
|----------------------|------------------------|------------------------|
| • Akene Zapatadenda. | • Confecciones Nogues. | • Multiópticas. |
| • Alba Moda. | • Donna. | • Noaoa Bidaiak. |
| • Arkupe Taberna. | • Electricidad Arregui | • Óptica Izarri. |
| • Asmae Zapatadenda. | • Ferretería Sukoa. | • Orbela Ekodenda. |
| • Bar Izurde. | • Librería Zumaburu. | • Ormazabal Loradenda. |
| • Bazar Abreu. | • Maya lentzeria. | • Perfumería Maiane. |
| • Bideo Lagunak. | • Mercería Aritza. | • Santana Informática. |
| • Cafetería Bus. | • Mercería Olmi. | • Ventanas Isu |
| • Complementos Alda. | • Mertzeria Uruzola. | • Zapatería Iturbe. |

• KALEJIRA TRIKITILARI ESKOLAKOEK GIROTUA (TTIRRIKI-TTARRAKA) 18:30 etatik - 20:00 etara / PASACALLES AMENIZADO POR LA ESCUELA DE TRIKITILARIS (TTIRRIKI-TTARRAKA) DE 18:30 a 20:00

ARETO-FUTBOLA.

Ostadar bigarren mailara igo da

Gipuzkoako III. mailako finala jokatuko du asteburuan Muxarraren aurka

Ostadar Cecilia Fruta Denda Kebab Lasarte taldeak Orioko Alustiza Autobusak taldea garaitu zuen atzo eta bere helburua bete zuen, Gipuzkoako bigarren mailara igotzea. Bestalde, Ostadar Antonio Aroztegiak III. Nazionalean eta ISU Leihoak taldeak Gipuzkoako I. mailan sailkapenaren erdian amaitu eta mailari eusteko helburua bete dute biek.

TXINTXARRI

Bigarren mailako taldea dugu dagoeneko Ostadar Cecilia Fruta Denda Kebab Lasarte taldea. Atzo goizean Orioko Alustiza autobusak taldea garaitu 2-3 zuen Edu Menaren taldeak. Gainera, hurrengo larunbatean Gipuzkoako III. mailako finala jokatuko du Muxarraren aurka, Mons kiroldegian.

Bestalde, Iñaki Lopez 'Txampi' pitxitxi izan da liga erregularrean, 30 gol sartuta.

Ostadar Antonio Aroztegia

Lasarte-Orian dagoen talderik onena da. Aldaz HKaren jarraipen gisa, III. Nazionalean lehiatu du aurten, Ostadar Antonio Aroztegia izenarekin.

Zortzigarren egin dute lasarteoriatarrek hamahiru taldeko ligan, sailkapenaren erdian kokatuta, eta arazorik gabe eutsi diote mailari. Liga Laskorainek irabazi du 55 puntu eskuratuta. Herritarrek 31 batu dituzte. Bederatzi neurketa ira-

bazi, lau berdindu eta 10 galdu dituzte. Golari begira, ate aurrean antzu xamar aritu dira, 61 gol besterik ez dituzte sartu 23 jardunalditan eta jaso berriz, 81.

"Mailari eusteko helburua bete dugu, egia da, baina pena pixka bat ere badugu, agian goraxeago gelditu gintezkeela ikusi baitugu amaieran... Azken minutuetan egin digute ihes puntu dexentek eta ate aurrean ere ez gara nahi bezain fin aritu. Datorren asteetan erabakiko dugu taldearen geroa, zenbat alta eta baja dauzkagun, zenbat diru dugun datorren urteko sasoiari begira... Gauza asko dira", adierazi du Iñigo Jaka Ostadar Antonio Aroztegia taldeko jokalariek.

ISU Leihoak

Gipuzkoako I. Mailan ere izan dugu herriko ordezkari bat, ISU Leihoak hain zuzen. Hauek seigarren amaitu dute liga, igoerako playoff postuetatik zazpi puntura.

Hasiera irregular samarrak



Iñaki Lopez bizkarrez defentsa lanetan. Urtzi Azpirozekin batera taldeko onenak izan ziren partidan.

T.VALLÉS

kondenatu ditu eta bigarren itzuli serioagoa egin arren, ezin izan dute igoerako playoffera sailkatu. Dena den, urteko helburua bete dute, mailari eustea. Hamahiru neurketa irabazi, bi berdindu eta bederatzi galdu dituzte. Gol asko sartu dituzte, 94, baina jaso ere gehiegi goragoko helburuei begiratu ahal izateko, 93.

Javi Solchaga herritarrek denboraldiaren laburpena egin digu: "Lehen itzuli txarra egin genuen jokalarien lesio eta lan konpromisoengatik gehienbat, fitxa berriak egin behar izan genituen. Bigarren itzuli ona



ISU Leihoak taldeko jokalariek, 2014/2015 denboraldiko talde argazkian.

osatu dugu eta datorren denboraldirako indarrez gaude, ea iaz

bezala playoffetan sartzea lortzen dugun".

KIROL-UDALEKUAK.

Kirol udalekuetan izena emateko epea zabalik, plazak agortu bitartean

Lasarte-Oriako Udalen zerbitzuak kirol udalekuak antolatu ditu 2003, 2004, 2005 eta 2006an jaiotako neska-mutilentzat. Kirol eta joko ezberdinak egingo dituzte izena ematen duten gazte txoek. Irteerak egingo dituzte eta igerilekuan ondo pasatzeko aukera ere izango dute.

Izen-emate epea zabalik dago jadanik. Udal Kiroldegira hurbildu daitezke euren seme-alabak apuntatzeko interesa duten gurasoek. Plazak muga-tuak direnez, inskripzio hurrenkera errespetatuko da, beraz, azkar ibiltzeko gomendatu dute.

Bi txandatan banatuko dira gaztetxoak. Ekainaren 24tik uztailaren 10era izango da lehenengoa eta uztailaren 13tik 24ra bigarrena. Goizeko 9:30etik 13:00etara dira

saioak, Udal kiroldegian. Udalekuen prezioa 150 eurokoa da eta taldeak gehienez 20 partaidekoak izango dira.

Hamaitakoa, bidaiak eta materiala prezioaren barenan sartuta daude. Kirol udalekua amaitzean, oroigarri bat jasoko dute denek opari.

Egingo diren irteerak Buruntzaldeko ibilbideetan barrena eta hondartzara izango dira.

Informazio gehiago jaso nahi duenak kiroldegiko bule-



goetan du aukera, astelehentik ostiralera 10:00etatik 12:30era eta 17:00etatik 19:00etara.

IGERIKETA.

Axier Arteaga eta Mikel Landa pilotariak GRAVNI torneoan aritu dira lehian

Euskal Herriko torneo garrantzitsuenetarikoa da GRAVNI eta herrialdeka jokatzen da. Lasarte-Oriak bi ordezkari izan ditu Gipuzkoaren izenean lehian. Ezker paretan binaka Axier Arteaga gaztea eta trinketean Mikel Landa beteranoa.

Joan den asteburuan aurpegia eta ifrentzua ikustea egokitu zitzaion. Mikel Landak galdu egin zuen trinketean eskuz banaka, Bizkaiko Gandiaga ordezkariaren aurka. Alde handi xamarra izan zen azkenean markagailuan, Gandiagak 40-16 Mikel Landa lasarteoriatarrek. Dena den, txapelkunorde izan da.

Bestalde, 22 urtez azpiko mailako ezker paretako txapelketan, Arteaga eta Imaz gipuzkoarrak Agirre eta Lasa nafarrak baino gehiago izan ziren. Azken emaitza, 22-16. Txapela jantzi zuten. Axier Arteaga Asegarcen enpresarekin entrenatzen ari den aurrelaria bere aharen berri ematen ari da jokatzen duen txapelketa bakoitzean.



JOSE FELIX SOLANO

Agenda

Ostirala, 22:00etan, Manuel Lekuona kultur etxea



Familia arazoak

Txaloren "Erdibana" antzezlanak ikusi ahal izango da. Ama bat jada urteetan sartua, enbolia ta gripearekin, baina hiltzeko oso gogo gutxi. 45 urteko semea du, hondatzen ari den enpresaren jabea bera, eta bera zaintzen duen 38 urteko beste bat. Etxe baten jabe dira, baina derrigorrean saldu beharrean aurkitzen dira. Gauerdian, kontu ezin daitezkeen sekretuak azaleratuko dira. Komedia eder eta berezi honetan, algara artean gozatuko dugu minutu bakoitza. Antzezleak Jose Ramon Soroiz eta Iker Galartza dira. Sarrera 5,50 euro

17:30etik 18:30era, Sanbodromoa eta photocalla.

18:30etik 20:00etara, Ekitaldi nagusian batukada talde bakoitzaren 5 minutu emanaldiaz gozatu ahal da.

20:00etan, Emanaldi nagusiari topaketako erritmoa joaz emango zaio amaiera.

22:30ean, Festari amaiera emateko, Skakeitan taldearen kontzertuaz gozatu ahal da.

Erakusketa

JALGI KAFE-ANTZOKIA

Maiatzan zehar

Atzegi elkarteak erakusketa osatuko du #elkarrion kanpainako selfie-ekin. "ElkarriOn adimen urritasuna duten pertsonen asko dute emateko" kanpainaren barruan, jendeak bidalitako argazkiekin egindako bilduma izango da ikusgai.

MERCERO ARETOA

Maiatzak 8 eta 15, 19:00-21:00. Maiatzak 9, 10, 16 eta 17 12:00-14:00 eta 19:00-21:00

Lasarte-Oriako Udalak, Antxota artisten elkarteak eta herriko sortzaile batzuek elkarlanean antolatuko dute arte erakusketa berezi hau. Guztira Lasarte-Oriako bederatzi egileren obrez gozatzeko aukera izango dute herritarrek. Eskultura, pintura, musika, argazkilaritza eta zurgintza lanak dira, denera 50 bat.

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Ostegunera arte

"Umeak arriskuan" argazki erakusketa ikusgai. Salesiarren Foyer Don Bosco elkarteak Beninen kalean bizi diren umezurtz, haur eta gazteekin egiten duen lana erakusten du.

Lasarte-Oria Udaberri Festa

Ostirala 15

ORMAZABAL LORADENDA

11:00-13:00 eta 17:00-19:00, "Hazi zure sesamoa" tailerra heldu, zein haurrei zuzendua.

OLMI MERTZERIA

17:00-20:00, Puntu tailerra helduentzat eta haurrei zuzendutako borla tailerra.

ZUMABURU LIBURUDENDA

18:00-20:00, Plastilina tailerra.

BUENETXEA KAFETEGIA

20:00-23:00, Country jaialdia.

ATERPEAKO BESTE DENDA ETA TABERNETAN Beherapenak, eskaintza bereziak, degustazioa, 2x1 pintxoetan edo pinxo bereziak.

3. Batukada Eguna

OKENDO PLAZA

Larunbata 16

10:00etan, herriko auzoetatik batukada diana egingo da Jalgune elkarteko lagunekin. Partehartzaileen iritsiera eta partehartzaileentzat txokolatada gozoa.

10:30etik 12:30era, Partehartzaileentzat ikastaroak izango dira. Lau ikastaroren artean aukeratu ahal izan dute: rezibatukada, body percussion, dantza afrikarrak edo txalaparta. Ikastaro hauek itxiak izango dira, baina bazkalostean ikasitakoaren erakustalditxoaz gozatzeko aukera izango da.

11:30etik 12:45era, Haurren tailerrak Porrotxen laguntzarekin. Gerturatzaren diren haur guztiek tailer ezberdinetan doan parte hartzeko aukera izango dute.

12:45ean, Goizean zehar ikasitakoaren erakusteko dute haurrek emanaldi txiki batean.

13:00etan, Txilibitu eztanda izango da. Festari hasiera handia emango diote partehartzaile guztiek.

13:00etatik 14:00etara, Poteoa DO TA KE txarangarekin Insausti, Jalgi, Trumoi, Ilargi eta Doner Kebab tabernetan.

14:30ean, Bazkaria Aurtengoan bazkari herrikoia izango da. Gosez dagoen edonork gozatu ahal izango du paella goxoa! Tikitak aurretiaz erosi beharko dira.

16:30ean, Ikastaroetako erakustaldia.

17:00etan, Topaketa erritmoaren errepaso.

Herritarren txokoa

Torredembarrara irteera

Lasarte-Oriako lagun talde batek Kataluniako Torredembarra herrira joateko autobusa antolatu du.

Topaketa kultural honetan parte hartzeko jendea behar dute. Berezi Oriako Sorgin Dantza dantzatuko duten herritarren bila ari dira.

Maiatzaren 29an izango da irteera eta 31an itzuliko dira. Autobusaren prezioa 40 eurokoa da. Hilaren 30eko zikro janarena berriz, 20 euro.

Izena emateko zerrendak Artizar eta Ilargi tabernetan daude. Internetez, lot.topaketa@gmail.com helbidera idatzi dezakete interesatuek.

Erakusketak jartzeko espazioa

Jalgi Kafe Antzokian erakusketa jartzeko interesa izan dezakeen edozeinek kultura@ttakun.com edo 943 37 14 48 telefonora dei dezake espazioa eskatu, edozein zalantza edo informazio gehiagorako.

Normalean hilabeteko iraupena duten erakusketak izaten dira Jalgin jartzen direnak.

Margoak, argazkiak, ilustrazioak... jarri daitezke.

Ez da zertan Lasarte-Oriako izan behar espazio hau erabiltzeko.

XXXIV. Santa Ana pala txapelketako izen-ematea

Zabalik dago Santa Ana pala txapelketako izen-emateko epea.

Interesa dutenek Abend tabernan egin dezakete inskripzioa ostegunera bitartean. Izen-ematea doan da.


Lasarteoriatar guztiak txapelketa herrikoi honetan parte-hartzera animatzen dituzte antolatzaileek.

Sarean

Mitzuli itzultzaile automatikoa

Mitzuli Androiderako itzultzaile automatiko berri bat da. 50 itzulpenoranzko baino gehiago eskaintzen ditu, eta haien artean protagonismo berezia dute baliabide urriko hizkuntzek, izaera komertzialeko produktuek albo batera utzi ohi dituztenek. Afrikaansa, aragoiera, asturiera, daniera, errumaniera, esperantoa, euskara, frantsesa, galiziera, gaztelania, hindia, indonesiera, ingelesa, italiara, katalana, kroaziera, malaysiera, nederlandera, okzitaniera, portugesa, suediera eta urduarekin egiten du lan, eta gehiago ere bidean dira. Testu bidezko itzulpena ez ezik, Mitzulik ahots bidezko sarrera/irteera ere eskaintzen du. Eta kartel, menu edo egunkari bat itzuli nahi duzula? Kamera bidezko itzulpenari esker, nahikoa izango duzu aurrean daukazuari argazki bat ateratzea bertako testua itzultzeko.

Mitzuli Interneterako konexiorik gabe ere lan egiteko gai da. Beste itzultzaile batzuek ez bezala, gainera, bere offlineko moduak onlineko moduaren kalitate berbera eskaintzen du, eta kamera bidezko sarrera bezalako ezaugarri aurreratuak ere eskuragarri daude. Doakoa izateaz gain, Mitzuli software librea da.



Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:

Geltoki kalea, 4 943 366858 txintzarri@txintzarri.info

Beteranotasuna garaile

Unai Muñoa garaile Astigarragako lehen saioan



Gipuzkoa Bertsotan Gipuzkoako Bertso txapelketako faseko lehen saioak izan dira asteburu honetan Astigarraga, Oiartzun eta Idiazabalen. Unai Muñoa herritarrek Astigarragako saioan kantatu zuen eta lehenengo postua eskuratu zuen. Erra! Bertso eskolako Beñat Iguaran eta Asier Azpiroz kideek, berriz, Idiazabalen izan zuten saioa.

Nahiz eta txapelketara prestakuntza falta zuela esan, Unai Muñoaren beteranotasuna gailendu zen Gipuzkoako Bertso txapelketako sailkapeneko lehenengo saioan.

Andoni Goitia, Imanol Irazustabarrena, Gemma Urteaga, Oier Aizpurua, Hodei Iruretagoiena, Haritz Mujika eta Mikel Iturriotzekin batera, Gipuzkoa bertsotan sailkapen faseari hasiera eman zioten Astigarragan larunbata goizean.

Kultur etxeko aretoa lepo zegoen sailkapen faseko lehen saioa hasteko zain eta ederki hasi zen jai Muñoarentzat.

Ofizioetan ongi ibili zen eta ongi erantzun zituen beste bertsolarien ekinaldiak. Ikus-

leen aurrean, esperientzia erakutsi eta TXINTXARRIRI esan bezala, diskurtsoa, edukiak, ikuspuntuak eta iritziak landu zituen.

Muñoak saio erregularra egin zuen eta hori epaian ikusi zen, 1,5 puntuko errenta aterazio bigarren sailkatuari.

Muñoak 298,5 puntu eskuratu zituen. Bigarren Gemma Urteaga izan zen 297 punturekin; hirugarrenak, Goitiak 296,5 puntu eskuratu zituen; Hodei Iruretagoiena izan zen laugarren 286,5 punturekin; Aritz Mujikak eskuratu zuen bosgarren postua 279,5 punturekin; Imanol Irazustabarrena seigarren izan zen, 276,5 puntu; zazpigarren Mikel Iturriotz izan zen 275,5 punturekin eta azkenik

Oier Aizpurua 267 puntu egin zituen.

Atzo goizean, berriz, Idiazabalen izan ziren Erra! bertso eskolako Iguaran eta Azpiroz. Azken honek lortu zuen garaipena.

Lehenengo itzuliari Antzuola, Zaldibi eta Hernaniko saioek emango diote amaiera. Azken honetan Ane Labaka herritarrek kantatuko du.

Hernaniko Sandiusterraretoan izango da saioa, maiatzaren 17an, igandea, arratsaldeko 17:30etik aurrera.

Sailkapenaren bila

Lasarte-Oriako, zein Erra! Bertso Eskolako kideek Gipuzkoako txapelketarako sailkapena lortzeko bigarren itzulian lan ona egin beharko dute ere: Unai Muñoak Bergaran maiatzaren 17an, igandea, 17:30ean; Zizurkilen, maiatzaren 31n, igandea, Anek 11:30ean eta Beñat Iguaranek, 17:30ean eta Asier Azpirozek, ekainaren 6an, larunbata, Ataunen, 17:30ean.

Benineko haurren etorkizuna

"Umeak arriskuan" erakusketa ikusgai

Salesiarren Foyer Don Bosco elkarteak "Umeak arriskuan" argazki erakusketa jarri du Manuel Lekuona Kultur etxean.

Elkarteak kalean bizi diren 7 eta 17 urte arteko umezurtz edo familia utzi duten gazteekin egiten du lan Beninen. Hauek tratu txarrak, biolentzia edo torturak jasan dituzte. Kasu batzuetan ere "sorginkeria" salaketa izan dute edo lanerako salduak izan dira.

Argazkietan elkarteak bertan dituen hainbat proiektu eta etxeetan egiten duten hezkuntza lana erakusten dute. Izan ere, haur eta gazteei ikasketak edo lanbide heziketa egiteko aukera ematen baitiote.

Era berean, gizartean eta bere familietan, hau izanez gero, integrazten laguntzen die elkarteak.

Benin

Benin Afrikako herrialdea dugu, Gineako golkoan kokatua. 10 milioi biztanle inguru ditu eta %50 ez da 18 urtera

iristen. Bizi itzaropena 57 urteko da.

Giza garapen Indize Txikia du 0,427 eta honek munduko herri pobreenen artean kokatzen du. Oinarritzko edo biziraupenezko nekazaritzaz bizi dira edo Nigeriatik datozen produktuen salmentaz. Hiru umetik batek lan egiten du. %31ak ezeztatu beharko litzakeen lanen bat egiten du eta honetan bere osasuna eta seguritatea arriskuan jartzen du. Gainera, haurren trafikoa ere badago.

Herritarra Beninen

Hau guztiaren berri ere ematen du elkarteak erakusketan dauden eskuorrietan.

Baina lehen eskuko esperientzia bat entzuteko aukera ere badago erakusketan. Arantxa Urdanpilleta herritarrek bolondres lana egiten baitu elkartearen eta Beninera ia urtero joaten baita lan egitera.

Argazki erakusketa maiatzaren 14ra arte, osteguna izango da ikusgai Lasarte-Orian.



Arantxa Urdanpilleta herritarra, erdian beltzez, Beninen egiten den lana azalduz.

LASARTEORIATARROK

garaile!

in gehi gaituzte gurekin. Gaituzte gurekin. Gaituzte gurekin.

Maiatza
Ostirala

15

Lasarte-Oria

HERRI BIZIA

Ekitaldi nagusia

Okendo planzan **19:30**

"Herritarren parte-hartzea eta gardentasuna izango dira gure lana zuzenduko dutenak"